



Halterofilia Lehiaketa jokatuko dute etzi

ZIZURKIL ▶ Galizia, Katalunia eta Euskal Herriko pultsulariak ariko dira, nor baino nor, Intxaurren

LEHIA ▶ Euskadiko selekzioan hiru zizurkildar ariko dira; Katalunia izango dute arerio gogorrena ▶ 4



Azokan ez zen nahi bezain beste jende izan. N. GARZIA

LEITZA ▶

Kultur taldea «gustura» dago Kultur Asteak eman duenarekin

Ekitaldi guztietan jende asko bildu zela informatu dute ▶ 7



I. TERRADILLOS

CARLOS PEÑA ▶ IGERILARIA

«Ekimen honen bitartez ekosistemak zaintzea lortu nahi dugu»

Tolosarra gaur abiatu da Italiara; bertan, Trasimeno lakua zeharkatuko du igerian, bizkarrez ▶ 3

AITOR IBARRA ▶ ETSIAK TALDEKO ABESLARIA

«Izugarrizko harremana dugu Ibarrarekin, gure herria bezala da»

Gazte Festen baitan, kontzertua emango du Etsaiak taldeak bihar ▶ 6



L.A. / LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKO HITZA

TOLOSA ▶

Bedaio auzoak badu dagoeneko bere tarte interneten

Webgunea sortu berri dute, auzoa ezagutzera emateko helburuarekin ▶ 5

TOLOSA ▶ GIZARTEA

Hemendik aste batera, sanjoanak

Egitarau «oparoa eta osatua» prestatu dute jai batzordeko kideek datorren astean ospatuko diren San Joan jaietarako

ESTI EZEIZA

Aste bat besterik ez da gertatzen aurtengo sanjoanetarako, eta joan den urtean bezala, «egitarau landua, oparoa eta osatua» prestatu dute jai batzordekoek. Andoni Iturzaeta kultur zinegotziaren esanetan, «lau urte hauetan lortu duguna da, Tolosako festa nagusiak, inauteriak ez ezik sanjoanak ere izatea».

Sanjoanetako egitarau hau azken lau urteetan egindako lanaren emaitza da. Antolatzaileen esanetan, duela lau urte analisi bat egin zuten San Joan jaien hutsuneak zeintzuk ziren ikusteko. Honen ondoren, azken urteetan zenbait aldaketa gauzatu dituzte, «eta jada ez dira santuen jaiak bakarrik, zerbait gehiago dira» gaineratu zuen atzo aurkezpenean Iturzaetak. Hasieratik ikusi zuten, Koadrila egunean eta San Joan egunean jendeak ekitaldietan parte hartzen zuela. Baina azken egunean jende gutxi ibiltzen zela, horregatik, egun honetarako zenbait aldaketa eman beharra zeudela erabaki zuten. 114.000 euro inguruko



Azken legealdiko jai batzordeko kideak jaien aurkezpenean. ESTI EZEIZA

aurrekontua erabili dute ekaineko festak prestatzeko. Honek ahalbidetu du, esparru ugari biltzen dituen jai batzuk antolatzea, eta egitarau oparoa osatzea. «Betiere, ohitura zaharrak ahaztu gabe» gaineratu zuen kultur zinegotziak. Kirola, musika, dantza... biltzen dituen programazioa osatu dute festa batzordekoek. Musika emanaldiak dagokionean, aurrekontuetako diru kopurua handitzen joan dira; hala ere, Andoni Iturzaetaren ustez «ez da nahikoa, eta aurrera begira, oraindik ere maila handiagoko tal-

deak ekartzen saiatu behar dugu». Umeei begira, esfortzu berezia egin dutela gaineratu zuen, hala, hauentzako hainbat ekitaldi eta jolas antolatu baituzte.

Aurkezpenean azpimarratu zuten ere tolosarren parte-hartzea ezinbestekoa dela festak aurrera eramateko. Honenbestez, behin eta berriz eskertu zien Iturzaetak festa batzordeko kideei, tolosarrei eta eragile guztiei. Bestalde, antolatzaileek aipatu zuten, eskopetarietara, Tolosan modu berezian ospatzen direla sanjoanak, eta parte hartuz gero, modu berezian bizi daitezkeela festa hauek». Festetako batzordea urte hauetan egindako lanarekin harro dagoela gaineratu zuen Andoni Iturzaetak, eta arrakastaz ere hitz egin zitekeela aipatu zuen.

Zezenketei dagokionean, toreatzaile ezagunak etorriko dira Tolosako jaietara: Fran Rivera Ordoñez, Manuel Diaz *El Cordobes* eta Jesulin de Ubrique. Bestalde, hauez gain, arreko urteetan bezala errekor-tariak izango dira.

TOLOSA ▶ POLITIKA

Bigarren zinegotzia ez du hartuko EB-Aralarrek

«Guztiek osatutako udalbatza osatzeko urratsak emango ditugu», diote

ERREDAKZIOA

Datorren larunbatean, hilaren 16an, Tolosako udaleko zinegotzi berriek beraien kargua hartuko dute eta horren aurrean Tolosako EB-Aralar koalizioak adierazi du legearen arabera dagokion bigarren zinegotzia ez hartzeko erabakia hartu duela.

EB-Aralarrek azaldu duenez, «Tolosar guztiek udalean beraien gustuko eta aukerako zinegotziak izateko eskubidea dute eta, ondorioz, hori eragotzi duen Alderdien Legea lehenbailehen bertan behera uztea eskatzen dugu».

Hala, «Alderdi Legearen aplikazioaren ondorioak gainditzeko eta tolosar guztiek ordezkaritza izan dezaten

udaletxean», EB-Aralar koalizioak bere eskura dagoen guztia egingo duela adierazi du, hots, «guztiek osatutako udalbatza bat osatzearan alde urratsak egingo ditugu».

Horregatik koalizioak ez duela hartuko legearen arabera dagokion bigarren zinegotzia esan du, «zinegotzi hori ilegalizatutako zerrendari legokiokeelako». Baina, «bigarren zinegotzia ez hartzeak ez du esan nahi EB-Aralar koalizioari botoa eman diotenean udalean gogor eta zintzo lan egiteko koalizioak hartu duen konpromisoa beteko ez dugunik, kontrakoak baizik», zehaztu, eta «Tolosaren, Tolosaldearen eta normalizazio politikoren alde are irmoago» lan egingo duela gehitu dute.

TOLOSA ▶

Eskopetariak behar ditu Beotibarrek

Hilaren 24ean eskopetariaren eguna izango da San Joan jaien baitan. Hala, Beotibar konpainiak azaldu duenez, eskopetariak behar ditu euren eskopetekin. Animatzen direnek 678 60 28 96 (Eli) telefono zenbakira deitu beharko dute.

IKAZTEGIETA ▶

Ikasturte bukaera ospatzeko jaiak etzi izango dira

Guraso elkarteak antolatuta, Ikaztegiako eskolakoek ikasturte bukaerako jaiak egingo dute etzi. 11:00etatik aurrera kiroldegian elkartuko dira, eta pilota, futbola, gehi dantza erakustaldia izango da. Arratsaldean puzgarriak izango dira, 17:00ak aldera.

AMEZKETA ▶

Igaratzako meza igande honetan izango da

Igaratzako meza igande honetan, hilaren 17an izango da. Aralarko magalean egiten diren elizkizun hauek hilaletan behin izaten dira. Eta ekaineko, beraz, aste honetan bertan gauzatuko da. Hurrengo hilekoari dagokionez, uztailearen 15ean izango da.



hilberria ▶

Martin Celaya Arrese

Zaila da esaten barrenean dagona zu beti izan zara gurekin hain ona beti maiteko zaitugu bihotzez aitona



Zure bilobak: Ramon eta Nathalie, Gorka, Iker, Harkaitz (+), Oihana eta Joseba, Esti, Ander, Haritz, Xabi, Kristina eta Ander, Mikel, Irati, Unai. Birloba: Mirentxu.

TOLOSA, 2007ko ekainaren 14a

hilberria ▶

Juanita Barandiaran Aldasoro

(Bernardino Intxaustiren alarguna)

Atzo hil zen, 82 urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

— Golan bego —

Arima zuzendaria: Josu Elorza; seme-alabak: Pedro Mari eta M^h Jose Santos, Marian eta Kepa Sasiain, Xabier eta Ailixi Arrizabalaga, Jon Ander eta Cristina Merino, Lurdes eta Mikel Garmendia; bilobak: Maider eta Raul Camarero, Asier eta Ainhoa Auzmendi, Nagore eta Jon Ander Gurrutxaga, Mireia, Ainhoa, Mattin, Gari eta Danel; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Familiak otoitz bat eskatzen dizue haren animaren alde eta GAUR OSTEGUNA, arratsaldeko ZAZPIETAN, MIKEL GOIANGUAREN parrokia elizan, gorpua aurreran dela egingo den hileta elizkizunera etortzeko erregua egiten dizue. Eskerrik asko guztioi alde aurretik.

hilbidea ▶ Bi-Kabi ebexa.

oharra ▶ gorpua Beasaingo Goierri beltatik dago.

IDIAZABAL, 2007ko ekainaren 14a



GUTUN@K ▶

Errespetuaz

Hitz batzuk, gu munduratzeko garenean, horrexegatik bakarrik geure egiten ditugu, esan liteke gurekin batera etortzen direla mundura. Aita, ama... horrelako hitzak, gurekin datoz munduratzeko garen momentuan.

Beste hitz mota batzuk, ordea, gure bizitza honetan, ez dira gurekin bizi, eskuratu egin behar ditugu, lortu, irabazi... Lana, etxea, lagunak, ba-ke... ez zaizkigu ematen, besterik gabe, jaio egin garelako. Ez, irabazi egin behar ditugu, geureganatu.

Eta hitz horietako bat da *errespetua*. Aspaldi ezagutzen dugun hitza da, oso zaharra da hitz hori mundu honen historian, baina aldi berean oso iheskorra. Jadanik antzinako klasikoek erabiltzen zuten. Errespetua herri batean zaharrek zuten irabazia, begirunea zitzaizen adinekoei bizitzan zehar lorturiko jakinduria eta esperientziagatik.

Nork bere hizkuntza (eta ez kanpokoa) erabiltzeagatik ere irabazi zitekeen errespetua edo begirunea.

Hori ere ikasi dugu liburu klasikoetan. *On Kixote Mantxakoa* liburuan, Cervantesen nobela zoragarri horretan, irakurtzen dugu apaizak esaten duela, bizarlariarekin duen aparteko eszena hartan, Ludobiko Ariosto bera ere aurkitzen badu berea ez den hizkuntzan mintzatzen, ez diola batere errespeturik gordeko; baina, bere hizkuntzan mintzatzen baldin bada, bere buruaren gain-gainean jarriko due-
la.

Idea hau oso interesgarria da, ikusten baita hemen errespetua lotzen dela inguruko gauzein, ingurukoari begirunea izatearekin. Horretarako ingurukoa ezagutu egin behar da, zerbait errespetatzeko aurrera zerbait hori ezagutu egin behar da, eta ezagutzeko begiratu egin behar da.

Klasikoek ederki asko zekiten hori: gure *errespetua* hitza

latinetik dator, *respetus* hitzetik hain zuzen. Eta haientzako *respetus* horrek bi aldiz begiratu esan nahi zuen, atzera begiratu esan nahi zuen. Gure *begirune* hitza ere hortik dator, begiratzeik.

Aurrena, beraz, ondo begiratu behar da inguruan daukazuna, atzean utzi duzuna, eta behin zerbait ondo begiratu eta ondo ezagutzen duzunean, orduan errespetatuko duzu.

Baina gauza hori ezin da inposatu, ezin da behartu. Errespetua irabazi egin behar da, errespetua ezin da hartu, ezin da lapurtu, ezin da borbaxatu...

On Kixoteren beste eszena famatu hartan gizon batek kristoren jipoiak ematen dizkio bere mutiko morroliari eta defentsa lanetan On Kixote azaltzen da mutikoaren rodeo On Kixotek morroliari esaten dio itzul dadila nagusiarengana ez zaiola eta ezer gertatuko.

«Nik horrekin joan —zioen mutikoak— berriz gainera? Ez jauna ez, ezta ezerengatik ere;

San Bartolome bat bezalaxe larrutuko nau».

«Ez du horrelakorik egingo —berriz erantzun On Kixotek—; aski da nik agindu izana, nireganako errespetua gorde dezan».

Pasarte honetan On Kixotek uste du nahikoa dela agintzea gizonak errespetua gorde diezaion. Jakina, On Kixotek alde egin bezain pronto kristorena eta bi ematen dizkio berriz nagusiak morroi gizajoari.

Ez, errespetua ez da eskuratzeko agindu hutsarekin. Errespetua errespetuarekin irabazten da, errespetua errespetua erakutsiz lortzen da. Iman harriaren kasuan bezala, errespetua gordetzen duen batek lortuko du aldamenekoak ere errespetua izan diezaion. Bestera hurbilduko zaito errespetua erakusten duenari, burdin pusketa iman harriari itsastan zaito moduan. Hori da modua, eta hori da modu bakarra agian. Horrela, zenbat eta pusketa handiagoa gauzatu, zenbat eta iman handiagoa osatu

orduan eta indar erakargarriagoa suertatuko da. Eta horrek efektu areagotzailea izango du jendearengan.

Kontua da, beraz, errespetua gorde eta mantentzen duen jende multzorik handiena osatzen joatea, errespetua erakutsiz beti ere, orduan eta indar erakargarri handiagoa lortzen joateko.

Behin horrela, errespetua aldarrikatzen dugu, hemengo gauzei errespetua, bertakoen eskubideei errespetua. Errespetuaren heziketa denontzat.

Ispilu batek irudia jaso eta itzultzen duen modura, geuk ere errespetua erakusten dugu eta gurekiko eta hemengo gauzei errespetua aldarrikatzen dugu. Eta errespetu hori zabal dadila denen artean, ispiluak ematen duen irudia hedatzen den moduan, eta ispiluak irudi garbia islatzen duen bezala denek erakutsi dezatela denen aurrean beharrezko errespetua. Hori da gure aldarria.

JOSE MARI ITURRALDE ▶ TOLOSA

CARLOS PEÑA ▶ IGERILARIA

«Ekosistemak zaintzea lortu nahi dugu ekimen honekin»

Italiako Trasimeno lakua igerian, bizkarrez, zeharkatuko du tolosarrak; Itsaso Hila gustatuko litzaioke izatea hurrengoa

IÑIGO TERRADILLOS

Carlos Peña abenturazale tolosarrak erronka berri bati ekin-
go dio etzi. Hain zuzen ere, gaur
abiatu da Italiarantz bertako
Trasimeno lakua zeharkatzeko
asmoz.

Zergatik aukeratu duzu laku hori?

Italiako Perugia probintzian kokaturik dagoen lakua da Trasimeno. 128 km2-ko azalera du, 20 kilometroko luzera eta 15eko zabalera. Kontua da, duela urtebete gizateriaren ondare den laku hau errekonozitua izan zela Living Lakes elkarrengatik. Elkarrekin honen helburua lakuetako ekosistemak defendatzea da. 41 laku inguru daude elkarrekin honen baitan, Vittoria, Titikaka, Balaton, Itsaso Hila, Chapala edota Trasimeno bera, esaterako. Elkarrekin laku honetan jardunaldiak ari da antolatzen lakuen eta hauen ekosistemak bermatzeko inguruan, eta hots egin ninduten ekitaldi hauetan parte hartzeko eskatuz.

Zein da gairiditu nahi duzun erronka?

Beti bezala, bizkarrez zeharkatuko dut lakua, hau da, nire estiloan. Denera, nire kalkuluen arabera, 7-8 ordu beharko ditut gutxi gorabehera. Lakua txikia dela esan daiteke, baina horrek ez du esan nahi ez denik gogorra izango. Gainera, beste abenturetan bezala, honetan ere nire aldean izango dut Jesus Remirez laguntzaillea. Eta, noski, uneoro aldean izango ditut, zodiak batean, sendagile bat eta lakuko guardia bat ere.

Ekimen honen helburua zein da?

Kasu honetan, kirolarekin baino, zerikusi gehiago du jendea sensibiltzatearekin. Erronka

hau egitearekin, lakua ezagutzera eman nahi dugu, ondare dela ikustea, eta bertan kirola egin daitekeela, eta nola zaindu behar dugun ikusaraztea da gure asmoa. Dena den, ahalik eta denbora onena egiten saiatuko naiz.

Trasimeno lakuarekin zenbat izango dira gairidituak dituzun erronkak?

35 inguru kontatzen ditut.

Hurrengo abentura non izatea gustatuko litzazuke?

Nire ilusioa Itsaso Hilan egitea da, baina ikusiko dugu, izan ere, oso zaila baita. Hala ere, orain Italian Living Lake elkarrekin uste dut proposamen bat egingo didala, eta nik baloratu beharko dut ea gustatzen edo komeni zaidan. Badituz, gaine-



I. T.

ra, Itsaso Hilaz gain beste proiektu batzuk buruan.

Beti ere, helburua elkarrekin parte hartzea izanik.

Bai. Nire arloan, kompetizioa oso zaila da. Horregatik normalean, helburu jaki bat duten elkarrekin hartzen dut parte horrelako abenturetan aritzen naizenean.

EUSKARA ▶

Euskara irakasteko ikastaroa abian da

ERREDAKZIOA

«Euskara irakatsi, ikasleak euskaldundu eta euskararen erabilera aktibatzea» dira AEKren erronkak. Horregatik, hizkuntzaren irakaskuntzan metodologia komunikatiboa eta erabilera sustatzen ditu. Hala, Tolosako AEKtik jakinarazi dutenez, euskara irakaste izateko glotodidaktika ikastaroa eskainiko dute hilaren 27tik uztailaren 24ra arte, Donostiako Antiguazio euskaltegian. Informazio gehiagorako 943 32 71 72ra deitu beharko da.

GOIERRITARRA aldizkariak KOMERTZIALA BEHAR DU GOIERRIN

ERREFERENTZIA:07-KOG

Eskaizten da:

- Etorrizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Laneko kontrata, gizarte segurantzarekin.
- Finko gehi komisioz osatutako soldata interesgarri bat

Eskaizten da:

- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
 - Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
 - Autoa izatea
- Kontuan hartuko da:**
- Publizitate eta komertzial lanetan eskarmentua izatea.
 - Goerri bertan edo inguruan bizitzea.
 - Goierri inguruak ongi ezagutzea.

Curriculum Vitae zehatza bidali ekainaren 15 baina lehen, gizabaliabideak@jarduna.net POSTA ELEKTRONIKORA Ez ahaztu erreferentzia zehatzea

Beti nahi jatetxea

Garaian garaiko janariak Arraikiatan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

ZIZURKIL ▶ HALTEROFILIA

Katalunia, Galizia eta Euskal Herria, nor baino nor Intxaurren

Hiru herrien arteko halterofilia lehiaketa jokatu dute etzi; Katalunia izango dute aurkari gogorrena euskaldunek



Lazkano, Kortajarena eta Sasiain, aurkezpenean. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Katalunia, Galizia eta Euskal Herriaren arteko halterofilia lehiaketa jokatu dute larunbatean Zizurkilgo Intxaurren pilotalekuan. Atzo aurkeztu zuten txapelketa Marian Lazkano alkateak, Batis Kortajarena antolatzaileak eta Igor Sasiain pulsulari zizurkildarrak.

Herri bakoitzetik bost pulsulari ariko dira lehiari Intxaurren frontoian, 18:00etatik aurrera. Euskal Herriko selekzioan hiru zizurkildar ariko dira: Ekaitz Kortajarena, Angel Martin eta Igor Sasiain. Kataluniako selekzioan, esaterako, Olinpiar Jokoetarako prestatzen ari den Sergi Martinez ariko da. Horregatik, Katalunia izango da Euskal Herriaren aurkari nagusia txapela jasotzeko lehiari.

Taldeakoa helburu

Batis Kortajarenak —antolatzaileaz gain Danena-Olaederra Halterofilia Taldeko prestatzailea da ere— azaldu zuenez, taldeakoa sailkapena dute helburu. Selektzio bakoitzeko pulsulariek lortzen dituzten puntuak osatzen da sailkapena. Teddy Martinez zizurkildarraren parte-hartzearekin ezingo du kontatu Euskal Herriko selekzioak, Pragan junior mailako Munduko Txapelketa jokatzen ari baita.

Pulsulariak adinaren arabera sailkatu dira. Seniorrak (20 urte baino gehiago), juniorrak (20 urtez azpitik) eta 17 urtez azpikoak. Malla bakoitzean sariak banatu dira. Hain zuzen, Igor Sasiain 17 urtez azpiko mailan lehiatuko da. «Nire helburua markak hobetzea eta taldeari ahal ditudan puntu gehien ematea da», zehaztu zuen aurkezpenean.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Etxebizitza. Etxebizitza salgai Tolosan. 3 logea, egongela, 2 bainugelak eta trastelekuarekin. Egoera ezin hobean, eta sartzeko moduan. Ikupegi ederrak.

44.000.000 pezeta. Deitu 626 752 744 zenbakira.
Etxebizitza. Alegian bi logelako etxebizitza polita salgai, erabat berrieta, 2 bainugelekin. 36.000.000 pezeta. 669 827 096.

LANA

Zerbitzaria. Neska euskalduna behar da kafetegi batean lan egiteko. Esperientzia. Igande eta jai egunak libre. Interesatuak deitu 943 670 446 zenbakira.

POLITIKA ▶

Azpiroz da PPren alkategai Elduainerako

Lizartzarako Otaolaz gain zein izango diren Udala osatuko dutenak ere zehaztu dute

ERREDAKZIOA

PPk zehaztu du Elduainerako eta Lizartzarako zinegotzien zerrenda. Elduainerako alkate posturako Jose Eugenio Azpiroz diputatua izendatu dute. Berarekin batera Santiago Abascal eta Arantxa Quiroga legebiltzarkideak, Angel Santano zinegotzi ohia eta Elena Rodriguez Nuevas Generaciones-eko idazkari orokorra. Halere, oraindik hauteskunde-batzordeak ez du erabaki PPK Elduaineren alkatetza lortzea duen.

Bestalde, Lizartzako Udala osatzeko Regina Otaolaz gain, Laura Garrido legebiltzarkideak, Manuel Mitxelena batzarkideak eta zinegotzi ohiak, Miguel Angel Fernandez EAeko Nuevas Generaciones-en lehendakaria eta Julia Tercero, Begoña Pereira eta Jose Luis Marcaida izango dira zinegotzi karguak hartuko dituztenak.

Regina Otaolak zehaztu duenez, oraindik ez dute erabaki kargu hartzeak herrietan edo Foru Aldundian egingo dituzten. «Itxiluak egon daitezkeenez, segurtasun neurriengatik Diputazioan egingo genuke», zehaztu dute PPren kideek. Lizartzan «normaltasunik ez dagoela jakina da», azaldu du Otaolak. Horrela, Joseba Egibarrek eta Udaleko idazkariarekin hitz egin duela azaldu du. Udala osatzeko «aukera onena» zein izan daitekeen zehazteko.

Otaolak esan duenez, Lizartzako Udalerako aurketu duten zerrenda «oso orekatua da, kudeaketa publikoan eskarmentua duten pertsonen osatua, hauetatik batzuk euskaraz dakitenak, eta gure egitasmoa da herri horretan askatasunean bizi dadin lortzea». «Askatasunaren» aldeko lan hori «zaila» izango dela gaineratu zuen. «Baina ez gara ikaratuko».

ANOETA ▶

Jubilatu eta pentsiodunentzat bazkaria

Urtero bezala, Udalak herriko jubilatu eta pentsiodun guztiei eskainiko die bazkaria Anoetako Herri Ikastolan San Joan egunean, hilaren 24an, 13:30ean. Bertara joan nahi dutenek izena eman behar dute udaletxean hilaren 20a baino lehen.

ZIZURKIL ▶

Elbarrena festetako kartel lehiaketa

Zizurkilgo Udalak Elbarrena festetako kartel lehiaketa antolatuta du. Edozeinek har dezake parte. Lana DIN A4 tamainan aurkeztu behar da, lau koloreetara eta teknika librean erabiliz. «Zizurkilgo Jaia 2007, Irailak 5-6-7-8-9» testua agertu behar du. Lanak aurkezteko epea uztailaren 6an amaitzen da.

VILLABONA ▶

Santio jaietako kartel lehiaketa martxan da

Santio jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa martxan dago. Villabonako edozeinek har dezake parte. Irabazleak 300 euro jasoko ditu. Lanak udaletxean aurkeztu behar dira eta horretarako epea hilaren 22an amaitzen da.

1. hitza eguna
EKAINAREN 17AN
AULESTIN

08:00 Mendi Irteera
11:00 Iai guneen trekiera
Pentxe taldeak martxan goiz guztian
Kalez kale euskal kantuekin.
11:30etik 13:30era Umeen Gunea
12:00 Euskal dantzak
12:30 Triki-barteo-poteoa
12:30etik aurrera, Gazteloko gunea
13:00 Kalejira
13:00 Umeen pilota partidak
13:30 Mendiz dalaosen ongi-etortza.

Ekitalditxoak plaza.

14:00 Umeen bazkaria
15:00 Nagusien bazkaria
Ostean bertsoak eta euskal kantuek.

15:00 Ipuin kontalaria
16:00 Altxorraren bila
17:30 Kalejira tinbatjoleekin.
18:00 Herri kirol erakustaldia
19:00 Dantza saio herrikola
Jaiaren amaiera Larrain Dantzarekin

hitza

BEDAIO ▶ TEKNOLOGIA BERRIAK

Hurbiletik ezagutzeko

Webgunea auzotarrek prestatutakoa da, eta bere helburua Balerdipeco txoko eder hau gehiago ezagutzea da



Bedaioi buruzko webgunean auzoari buruzko informazio asko aurki daiteke. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Bedaio hobe ezagutzeko webgunea aberatsa, oparoa eta bertakoez egindakoa. Tolosako auzo urrunetako bat, mendi eta paisaia ederrez inguratutako auzo bizia: bertako biztanleek ematen dioten bizitasunarekin lortutako auzo bizia. Hori guztia ezaugarri bezaguna sortu dute: www.bedaio.com.

Diseinua Julen Beloki bedaiotarrak egin du: agenda, web loturak eta sarrera dauzka. Urtean zehar antolatutako ekitaldi guztiak ikusgai daude, argazkiez lagunduta. Eguneratu dago, eta horretaz ere, Julen Beloki bera arduratzen da. Jaione Zubillagak eta Nekane Izagirrek testua moldatzen arduratzen dira.

Bedaioarren asmoa betidanik Bedaio ezagutzera izan da; Tolosaren parte da, baina distantziak urrun samar egotearekin eta auzoa izatearekin, zertxobait baztertuak sentitzen dira, «baina pentsatzen dut To-

losako auzo guztiak bezala», dio Artubi elkarte kide batek. Horregatik, «beti Bedaioko ekitaldiak prestatu eta antolatu ditugunetan auzoarentzat bakarrik izan da, itxia zentzu batean. Horregatik, webgunearekin, modu batera gehiago irekitzen da eta ezagutzera emateko modu egokiena da».

Webgunearen mantenu ekonomikoaz, mementuz, Artubi elkarte arduratzen da.

Intereseko edukinak

Edukinen aldetik ere, Artubi elkarteak mugitu dira: «Donostiako Koldo Mitxelena liburutegian, liburuetan-eta aritu gara Bedaioi buruzko informazioa jasotzen, baina ez dago gauza handirik. Gutxi hori webgunean islatzen saiatu gara, eta modu atsegin eta arin batean. Azken batean, webgunea errazteko da, funtsean Bedaio non dagoen kokatzeko».

Dagoeneko 900 bat lagunek bisitatu dute webgunea erakarri hau, eta Bedaioko Artubi

elkartekoak «pozik» daude emaitzarekin. Bertan idazteko eta iritziak emateko aukera dago, eta bertan idazten duen jendeak iritzi ona eman du.

Igandeko mendi martxaren gaineko datuak eta argazkiak ere daude ikusgai, www.bedaio.com webgunean, hain zuzen. «Propaganda egiteko bide egokia» dela diote, baina ederrki zaindu dute webgunea egiteko garaian, erraz aurkitzen ez den informazioa, eskura, auzoaz gehien dakitenen eskutik.



Mendi martxa 162 lagunek egin zuten. HITZA

Mendi martxarekin «pozik»

Erredakzioa ▶ Igandean burutu zuten Bedaioko I mendi Martxa. 25 km-ko ibilbidea zen. Eguraldia lagun ez izan arren, 33 herri desberdinetako (Tolosaldea, Goierri, Urolakosta, Bidasoa, Leitzalde, Donostialdea, Debagoiena Iruña eta Gasteiz) 162 lagun izan ziren Bedaiotik abiatu zirenak.

Lehenengoek 4 ordutan bukatzea lortu zuten eta azkenek berriz 8 ordu pasatxo behar izan zuten. Artubitik jaitziera nahiko arriskutsu egon zen eguraldiarengatik; halere, partaideen hitzetan ibilbidea «oso polita eta bista zoragarriak ikusteko parada eman zuen». Balantze oso positiboa egin dute antolatzaileek, beraien helburuetako bat, Bedaioko inguruak ezagutaraztea baitzen.

Bukaeran salda, txorixo, ha-

ragi egosi eta bestelako jakiez indar hartzeko aukera izan zuten parte-hartzaileek eta baztuek sariekien etxera bueltatzeko bidea.

Artubi elkarteak eskerrak eman nahi dizkie antolakuntzan parte hartu duten guztiei beste behin. Eta baita enpresa laguntzaileei, hala nola, Aralar Kirolak, Insalus, Ilorreta base-ria, Bodegon Benta Aldea, Zazpiburri Iturgintza, Distribuciones Mendieta, Txiki Jai baikillak, Shanti Kirolak, Artubi iturgintza, Iñaki Balerdi harategia, Ogiberri, HITZA, Kopibat, Tolosako Udala, Iñaki sukaldeak eta Zabala kafeaki ere. Eskerrak luzatu dizkiete ere Gurutze Gorrikoei, «beraien pazientzia eta burututako lanagatik». Datorren urtean, ia II. Mendi Martxa bedaiotarrekin antolatzen duten. ◀

BIDAIA ALTERNATIBOAK
Bidaitezko beste modu bat

Hegaldiarekin	...tik aurrera	Hegaldirik gabe
VENEZUELA 20 egun 2030€ Peru 17 egun1805€ Bulgaria oinez15 egun.... 1210 Vietnam 20 egun2190€ India 16 egun 1200€ Yemen 18 egun 1580€ Uzbekistan 17 egun 1790€		Naminia-Bostwana-Zimbabwe 14 egun 700€ Hegoafrika - Lesotho 20 egun 1000€ Bolivia 16 egun 997€ Estatu Batuak.16 egun....1218€ Canada 15 egun....1189€ Nepal 13 egun.... 559€ Myanmar 14 egun.... 760€

Egitarrak gehiago aukeran KONTSULTATU
Web orriko bazkidearen tokoa izena eman eta bidaia beten zozketan sartuko zara.

Egitarrak gehiago aukeran KONTSULTATU

Segundo Izpizua 28 info@kultourbidaia.com
Donostia. 943 29 70 25 www.kultourbidaia.com

ingeniaritza imh **IMH Ingeniaritza Eskola**

Goiz-malako heziketa zikloa egin ondoren nahi baduzu...

ate irekiak
Ekainaren 16an
Goizeko 11:30ean
... zator IMH Ingeniaritza Eskola ezagutzera

zure txanda!

ikasten ala lanean?
Ikasi eta gainera lan egiten diti!

IMH INGENIARITZA ESKOLA
Azkue Azkue, 1
20610 EL GOIBAR, Gasteiz
Tel. 943 744 132
E-mail: ingeniaritza@imh.es
www.imh.es

cesis

AITOR IBARRA 'AUO' ▶ ETSIAIAK TALDEKO ABESLARIA

«Ibarra gure herria bezala da, izugarrizko harremana dugu»

Etsaiak taldeko abeslariak «oroitzapen onak» gordetzen ditu Ibarra kontzertuetaz eta bihar emango duten kontzerturako gogotsu azaldu da

ASIER IMAZ

Gazte Festetako lehen egunean, bihar hain zuzen ere, Ibarra, Etsaiak taldeak kontzertua eskainiko du Deskontrol taldearekin batera 23:00etatik aurrera. Aitor Ibarra Auo (Lekeitio, 1969) taldeko abeslari eta konposatzaileetarikoa da.

Ez da lehen aldia Etsaiak Ibarra jotzen duela, zein oroitzapen gordetzen dituzu?

Oroitzapen onak, makina bat aldiz jo dugu Ibarra. Pare bat aldiz abuztuko herriko jaietako lehen egunean jo dugu, presoen afaria eta gero. Guretzat leku familiarra da, geure herria bezala da, beti izan dugu izugarrizko harremana. Fidantza ordaintzeko antolatuta zen kontzertu batean Pin Pan Pun-ekin jo genuen. Tijuana-ekin batera. Oroitzapen onak... eta neska onak ere bai [kar, kar].

Lau urtetan geldirik egon da Etsiak?

Bai, baina berriro beste talde guztiak laga edo aparkatu ditugu eta berriro Etsiak sartu gara denok, eta gogor gainera. Orain, abuztuan 20 urte egiten ditugu eta lau urte norberaren aldetik ibili gara, esperientziak probatzen. Orain inoiz baino batuago gaude, gainera disko berria prestatzen ari gara Durangoko Azokarako, aurrean ateratzeko beraz. Oso gustura gabiltza.



LEIRE AKARREGI / LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKO HITZA

Inoiz baino gogo gehiagorekin eta indartsuago?

Hori da, inoiz baino gehiago. Urteak pasa dira eta aukera gehiago ez ditugu izango. Jada, nahi ala ez urteak badoaz eta aukera honi ihes egiten utzi aurretik berriro elkartu gara.

Gorputzak eskatzen zuen?

Ez, egia esan bakoitzak geure bizipen musikakal topatu nahi genituen, eta hortik sortu ziren Txapel Punk, Pin Pan Pun eta antzeko proiektu berriak. Neska lagunarekin egiten den bezala izan da: denbora bat hartzen duzu haizea hartzeko eta bakoitzak bere esperientzia bizitzeko, gero balorazioak atera eta merezi duen ikusteko. Egia esateko, denok izugarrizko gogoia izan dugu Etsiaiekin itzultzeko.

Disko berriko zerbaite erabaki al duzue?

Kanta bat badago behintzat eta oso gustura jotzen dugu. Etsaien sustraiak izena du. Belar txarrak berriro jaiotzen direla azaltzen du, nahiz eta enborra erre, sustraiak beti jarraitzen duela, eta hori izan da pixka bat disko honekin dugun ideia, gure sustraiak berriro berreskurteaz.

Zuen letrak eta musika bera ere, oso zuzenak dira.

Etsiaiekin beti mezu eta musika zuzena erin nahi izan dugu. Leketion esaten den bezala, tontokeria barik. Hitzak eta letrak neurri barik egiten ditugu, zuzenean, gauzak argi eta gogor esanaz.

Itxurakeriaren gizarte honetan, zuek aurkakoa egiten duzue beraz?

Hori da. Talde moduan beti eduki dugu hori argi; borrokan musikaz ere asko egin daiteke-

ela. Gure mailan, Euskal Herrian dagoen arazoari laguntza ematen saiatzen gara, gauzak aldatzeko.

«Ez dago etorkizunik: kaosak». Zure hitzak dira.

Hasi ginenetik gaur egun arte ez dira aldatu gauzak, are gehiago, okerrago daude. Arrazoi gehiago ditugu beraz, gero eta egur gehiago sartzeko musikal. Gauzak ez direla aldatzen ikusten dugu, eta ondorioz, geu ere ez gara aldatuko, alderantziz, hor mantentzen gara sistemari egurren ematen. Azken batean, ez daukagu beste aukerarik, beti egurren jasotzen ari gara eta norberak ere defendatu beharra du.

Etsiak beraz, eurek sortutako monstrua da?

Bai [kar, kar]. Behintzat euren kontra eztanda egin duen monstruo bat da. Hori da, domatu eta manipulatu nahi izan dute, baino txarto irten zaie mekanismoa.

Gaztetxean jo nahi zenuten baina plazan izango da azkenean kontzertua?

Bai, baina ez harritu festetako presoen egunean itzultzen bagara. Lagun asko ditugu Ibarra, jende ezaguna, bizitzan topatu duzun jende jatorra. Kontzertuak ematen ere horrela gabilta, urteetan zehar ibili garen lekuetatik, Euskal Herri guztiaren barrena. Jendeak maite zaituela ikusten duzu eta hori polita da.

IBARRA ▶

Kirol elkartearen urteroko Batzar Orokorra, bihar

Ibarra Kirol Elkarteak (I.K.E.) urteko Batzar Orokorra ospatuko du bihar gaueko 21:00etan. Deialdia egiten diete bertako bazkide guztiak, bertara azal daitezten eskatuz. Aldi berean, elkartearen urteroko festan egingo den bazkarirako zerrenda irekiko dute egun hortan. Festa uztailaren 7an izango da eta ahalik eta bazkide gehienen parte-hartzea eskatu du zuzendaritzak.

GAZTELU ▶

Osasunari buruzko tailerra hilaren 20ean

Uli Mankomunitateak antolatu eta Kutzako ikasgelak sustatutako osasunari buruzko jardunaldietako hurrengo saioa hilaren 20an, asteazkenean izango da, arratsaldeko 17:30ean Gazteluko Herriko Elkartearen. Kasu honetan landuko den gaia *Erlaxazio-tailerra. Arnasten ikasiz, bizi-luzatuko dugu* izango da.

IBARRA ▶

Etzi Ziklo Indoor maratonia kiroldegian

Ibaratik Misio Taldeak eta Bizkortzen Kirol Ekintza I. Ziklo Indoor Maratonia antolatuta dute etzirako, 17:00etatik 19:00ak bitarte. Parte hartzeko izena eman behar da eta epea zabalik dela jakinarazi dute antolatzaileek.

hitza

Harpidedunen
txokoa

Egin zaitez harpidedun!

HITZAREN HARPIDEDUN
TXARTELAREKIN %5*-eko
BEHERAPENA izango duzu
zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko
eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik
eskuratu dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

honetan
TOLOSA • Tel.: 943 67 22 44
Santa Mari plaza, 1 behea

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

ILUMINAZIOA

SHANTI
KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85
Pablo Gorosabel, 28 • TOLOSA
943 65 40 37

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
T O L O S A

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

LEITZA ▶ KULTUR ASTEA

Kultur taldea «pozik» dago jendeak izan duen erantzunarekin

Ekitaldi guztietan jende asko bildu den arren, Aurreran egindako ihote zaharrei buruzkoan izan da jende gehien



Artisau azokan 10 izan ziren azaldu ez ziren artisauak. Halere, jende asko ibili zen plazan. N. GARZIA

NAIARA GARZIA

Leitzako kultur taldeak Kultur Astearen antolatutako ekitaldi guztietan jende asko ibili dela azaldu du eta «pozik» gelditu da jendearen harrerarekin.

XXIX. Kultur Asteak hainbat

ekitaldi eta emanalditaz gozatzeko aukera eman die herritarrei. Alor ezberdinak hizpide hartuta, zinemaren, Aurreran eta Peritzan tabernan izan diren emanaldietara jende asko bildu da. Ihote zaharrek, Aizkorri mendia, Jose Mari Espartzak

idatzitako liburua (*100 razones por las que deje de ser español*), Jon Maiak Kanadan baleontzian egindako bidaia, gerra eta memoria historikoa... Hauek izan dira Kultur Aste honetan leitzarrek hitzaldi ezberdinetan entzun ahal izan dituz-

ten gaiak. «Beharbada jende gehien Aurreran egin zen ihote zaharrei buruzko hitzaldian bildu zen, azken batean herriko kontuek interes handia pizten dute jendearengan», dio Jokin Barriola kultur taldeko kideak. Bestalde, ostiralean gerraren inguruan eginiko hitzaldian bildu zen jende gutxien, «ostirala izanda, iluntze aldera izanik eta egiten zuen eguraldiarekin jende mordera zegoen plazan», dio Barriolak. Halere 15-20 bat pertsona bazeuden, «eta hori Leitzako bezalako herri batentzat ongi dago». Jose Mari Espartzaren hitzaldia eta Jon Maiaren hitzaldi-emanaldian ere jende asko bildu zen. «Peritzan Jon Maiaren hitzaldian ez zen inor gehiago sartzen».

Kultur Astearen bigarren egunean *Bertsotranpak* ikuskizuna izan zen zinemaren. Antolatzaileen arabera 120 pertsona inguru bildu ziren eta honekin ere «pozik» agertu dira.

ESAIT Egunarekin esan zioten agur Kultur Asteari, eta orduan ere antolatzaileek azaldu zuten, egin zuen eguraldia kontutan hartuta emaitzarekin «gustura» gelditu ziren.

Artisau azoka

Ekitaldi guztietatik bakarra da kultur taldearen barruan atsekabea sortu duena, artisau azoka, hain zuzen ere. Baiezkia eman ondoren igande goizean bertan 10 artisau izan ziren azkenean etorri ez zirenak. «Goizak aurrera egin ahala etortzen ez zirela ikusita deitu egin guren, eta ez zutela etortzeko asmorik esan ziguten».

LEITZA ▶

EAE-ANVren agerraldiak debekatu ditu Gobernuak

ERREDAKZIOA

Nafarroako Gobernuaren Delegazioak larunbateko EAE-ANVren elkarretaratzekak debekatu ditu (Leitzakoa barne) eta era berean Guardia Zibilak udaletxeak «zainduko» dituela jakinarazi du.

Gobernuaren Delegazioko prentsa-ohar baten arabera, 11 herritan antolatuta zuden elkarretaratzekak debekatu zituzte: Leitzako, Iruñea, Agoitz, Berriozar, Tafalla, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Irurtzun, Altsasua, Olazti eta Ziordiakoa, hain zuzen ere.

Beraz, eta jakitera eman dutenez, Guardia Zibila eta Espainiako Polizia «berezi adi» egongo dira 11 herri horietan, baita Epaitegi Konstituzionalak EAE-ANVren zerrendak debekatu zituen 18 herrietan ere.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitzako.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdiak: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzio klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitzako): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrumendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ AZPIEGITURAK

Margotze lanak direla-eta Udalak herritarren laguntza eskatu du

Osasun-etxera doazenak igerilekuko aparkalekua erabili dezaten eskatu dute

ERREDAKZIOA

Aurreko astean asfaltatu eta konpondu zituzten kaleak margotzen hasiko dira gaur. Osasun-etxetik hasiko dira margoketa lanekin, gero Elbarren kalearekin jarraituko dute, autotoxokeetako aparkalekuarekin eta Manuel Lasarten amatuko dute. Udalak azaldu duenez, lan hauek hiru egunetako iraupena izanen dutela

aurrekusten dute, betiere euririk egiten ez badu.

Margotze lanak direla eta, margotzen hasten direnean, osasun-etxera doazenak, igerilekuko aparkalekua erabili behar dute, pintura lehortu arte. Udal langileek eremu hauetan hesi horiak jarriko dituzte inork autoa utzi ez dezan eta Udalak herritarren laguntza eskatzen du eremu horietatik auto guztiak kentzeko.



Osasun-etxe inguruko zolaketa konpondu dute. N. GARZIA

Bestalde, hurrengo egunean, gas naturaleko enpresakoen egindako zuloak asfaltatzen hasiko dira eta horretarako Udalak ere herritarren laguntza eskatzen du, lan hauek be-

har bezala egin ahal izan daitezkeen.

Gainera, atzo iragarri bezala, aste honetan zeharbidea margotuko dute, euririk egiten ez bada behintzat.



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Esgrima, aerobik eta piraguismo ikastaroak antolatu dituzte Alegian, 8 eta 16 urte artekoentzat. Izen-ematea, Kultur eta Kirol Etxean 15a baino lehen.

Belauntza. Kultur Etxean 18:15ean doia Sanchez ipuin kontalariaren emanaldia.

Leaburu. Idoia Sanchez ipuin kontalariaren emanaldia Leaburuko liburutegian 17:00etan.

Leaburu. Irteera antolatu dute Iparraldera eta kostaldera hilaren 15erako. Izen-ematea, 943 682228 telefonon 23 eurotan.

Tolosa. Sakramentuen mendeurreneko ekitaldien barruan, Anthony McSweeney-ren hitzaldiak izango dira eukaristiari buruz Kultur Etxean; bihar eta etzi 20:00etan. Etzi otoitzaldia 18:00etan eta igandean meza gotzainarekin 12:00etan Korpus Kristin.

Tolosa. Urduña-Angulo mendatea (Araba) irteera antolatu du Alpino Uzturrek iganderako. Izen-ematea, elkartean bertan (Gudari 6. 943 65 27 89).

Villabona. Moncayo mendira irteera antolatu du Aizkardi mendi elkarteak iganderako. Izen-ematea, elkartean edo 943 694458 telefonon (Joxan).

ZINEMA

Tolosa. Zine-forum saioan, Ariane filma ikusgai, 19:15ean eta 21:45ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.

IRRATIA

Txolarre irratiak (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, TOLOSALEKO ETA LEITZALDEKO Hitzaren errepasoak, elkarrizketak, agenda, lehiaketak, disko eskaniak...
18:00-20:00. Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).
20:00-21:00. Irauli uhinak.
21:00-23:00. Bide okerretik.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Idazle trebeenei saria

TOLOSA ▶ Lehen eta Bigarren Hezkuntzako idazle gazteen artean XXI. Uxola Sariak banatu zituzten atzo, hizlauan nahiz poesian; guztira lau maila izan ziren

ERREDAKZIOA

U da usainarekin heltzen dira urtero Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza batzordeak antolatzen dituen Uxola Sariak. Aurten goian, 21. ediziora heldu dira eta bertan eskualdeko ikastetxe askok hartu dute parte —Alegiako, Anoetako, Ibarra, Berrobiko, Amezketako eta Tolosa, Berastegi...—.

Sari banaketa Kultur Etxean burutu zuten atzo eta guztira 24 saridun izan ziren, maila bakoitzeko hiru lan bozkatuena hizlauan eta poesian, hain zuzen ere. Urtero bezala, lanen «maila altua» goraiatu zuen epaimahaia. Hala, literaturara hurbiltzeko giltza izan da askorentzat Uxola sarietara euren lanak bidaltzea. Etorbizunean ikusi beharko, bada.

IRABAZLEAK ▶

I. MAILA

Hizlaueria. Inhar Esnaola Barriola, *Lau ezpaten kondaira.* (Muñagorri eskola, Berastegi).

Olerkia. Manex Altuna Oiarzabal, *Ametsak.* (Uzturpe ikastola, Ibarra).

II. MAILA

Hizlaueria. Gorka Sorarrain Agirrezabala, *Hegan ez zekien arranoa.* (Samaniego herri eskola, Tolosa).

Olerkia. Amaia Juaristi Arrizabalaga, *Itxaropenaren zuloan.* (Samaniego herri eskola, Tolosa).

III. MAILA

Hizlaueria. Ainhoa Sukia Solana, *Frantziara bidaia.* (Laskorain ikastola, Tolosa).
Olerkia. Mirari Martin Garro, *Heriotza.* (Orixe institutua, Tolosa).

IV. MAILA

Hizlaueria. Irati Garikano Mujika, *Ez nauze ulertzen.* (Anoetako herri ikastola, Tolosa).

Olerkia. Ainara Otamendi Elizalde, *Espetxetik azken agurra.* (Uzturpe ikastola, Ibarra).



Uxola Sariak atzo arratsaldean banatu zituzten, Kultur Etxean. E. EZEIZA

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Irati Sainz Egizabal (Anoeta).
2 urte pottoki. Muxu bat aitabaxo eta amaboren partetik.



URTE ASKOAN

Nahia Omaira Dorronsoro (Berrobi). Gaur 2 urte pottoki!
Aita, ama eta Maddiren partetik.

Mesedez,
ekarri argazkia
bi egun
lehenago.
Mila esker.

hitza
agurren
tarte

Urtebetetzak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak,
jaioberriak...



2007KO KOBRAKETA KANPAINA ABIAN

Egunean 19 zentimoren truke egin zaitetz harpidedun!

eta gainera...



...eta banaketa txukuna izan dadin giltza ematen duzuen artean Ortzadar lantzeria-dendan 120€-ko erosketa txartela.

urteko kuota ordaintzeko kontu korronteko zenbakia ematen duzuen artean Tolosako Casa Julian jatetxean afaria zozketatuko dugu.

